ERANSKINA

"MINTZA JOLASAK 2026-2027" PROGRAMA

1. Deialdiaren xedea.

1.1. "Mintza Jolasak 2026-2027" euskarazko programa hezigarria Nafarroako ikastetxeetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailetako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako A ereduko ikasleekin eginen da, 2026-27ko eskola-aldietan.

2. Programaren deskribapena eta ezaugarriak.

2.1. "Mintza Jolasak 2026-2027" programa hezigarriaren helburua euskara curriculumean baino eremu zabalago batean erabiltzeko aukera ematea da, eguneroko bizitzarekin zerikusia duen euskararen praktika intentsiboa lortzeko jarduera ludikoagoak eginez. Horrela, ikasleen komunikazio-gaitasuna hobetzea lortu nahi da, batez ere ahozko ulermena eta adierazpena.

2.2. Ikastetxe horiek hiru eguneko (A modalitatea) edo bost eguneko (B modalitatea) tailerra eginen dute, egunean hiru eskola-orduko iraupenekoa.

2.3. Programa osoak gehienez ere hiru irakastorduko 460 saio izango ditu, aipatutako bi tailer-modalitateetan banatuta, etapa bakoitzera egokituta.

2.4. Etapa bakoitzera egokitutako tailerrak hezitzaile aditu talde batek jarriko ditu praktikan, izena ematen duten ikastetxeetan bertan. Arloko irakasleak taldearekin batera

parte hartu beharko du jarduera horietan, bere ordutegiak ahalbidetzen dion neurrian.

3. EGUTEGIA:

2027ko URTARRILA-MAIATZA

TXANDA	**DATAK**
1	01/11 – 01/15
2	01/18 – 01/22
3	01/25 - 01/29
4	02/01 – 02/05
5*	02/10 – 02/12 (* 3 egun: inauterien astea)
6	02/15 – 02/19
7	02/22 – 02/26
8	03/01 – 03/05
9	03/08 – 03/12
10	03/15 – 03/19
11*	03/22 – 03/24 (* 3 egun: Aste Santua)
12	04/05 – 04/09
13	04/12 – 04/16
14	04/19 – 04/23
15	04/26 – 04/30
16	05/03 – 05/07
17	05/10 – 05/14
18	05/17 – 05/21
19	05/24 – 05/28

Tailerrak 2027ko urtarriletik maiatzera bitartean egingo dira, irakastorduetan. Eskola-eguneko saioen ordutegia ikastetxearen eta enpresa esleipendunaren artean adostuko da,

tailerrak esleitu ondoren. Horrela, parte hartzen duten ikasleek erreferentzia-taldetik irten behar izateak ahalik eta kalterik txikiena eraginen die ikastetxeari eta erreferentzia-taldeari.

4. Eskaera egiteko epea eta modua.

Deialdia honako webgune hauetan argitaratuko da: www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es.

Ikastetxe bakoitzak nahi adina tailer eskatu ahal izanen ditu. Taldeak ez dira, normalean, 20 ikasle baino gehiagokoak izanen, eta, ahal den neurrian, talde naturalei eutsiko zaie. Eskaera bat egin beharko da maila bakoitzeko.

Ikastetxeek web-inprimaki baten bidez eginen dute eskaera. Inprimakia aipatu web orrietan argitaratuko da 2026ko urrian. Hezkuntza Departamentua, erakunde esleipendunarekin lankidetzan, tailerrak esleitzeaz arduratuko da, deialdian ezarritako irizpideen arabera, eta tailerrak egingo direla bermatuko du, ikastetxe eskatzaile bakoitzeko maila batean gutxienez. Ikastetxe bakoitzeko tailerren kopurua ikastetxeek guztira egindako eskaeren kopuruaren araberakoa izango da.

Tailerra erakunde esleipendunarekin zehaztu ondoren, eta Hezkuntza Departamentuko Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuak gainbegiratuta, erakunde esleipenduna euskarako irakaslearekin harremanetan jarriko da bi alderdien arten jarduera antolatzeko. Eskola-orduen barruko saioen ordutegia ikastetxearen eta enpresa esleipendunaren artean adostuko da, txandak esleitu ondoren.

Ikastetxe bakoitzari esleitutako tailerren kopurua ikastetxeak egindako eskaeren kopuruaren, eskaera orokorraren eta inskripzio-ordenaren araberakoa izanen da.

5. Hautaketa-batzordea eta esleipenerako baremoa.

5.1. Hezkuntza Departamentuak hautaketa-batzorde bat izendatuko du, kide hauek izango dituena:

Presidentea: Euskara Ataleko burua, edo hark eskuordetutako pertsona.

Batzordekideak:

Euskararen Sustapenaren eta Didaktikaren Bulegoko burua, edo hark eskuordetzen duena, eta Euskara Ataleko irakasle-aholkulari bat.

5.2. Hautaketa-irizpideak eta baremoa:

Batzordeak irizpide hauen arabera baloratuko ditu ikastetxeen eskabideak:

- Inskripzio-ordena hartuko da kontuan.

- Ikastetxe bakoitzeko tailerren kopurua eskaera guztien kopuruaren araberakoa izanen da.

- Programak eskainitako tailer kopurua baino eskaera gehiago jasoz gero:

* Ikastetxe bakoitzean gutxienez tailer bat eginen dela bermatuko da.

* Lehentasuna izanen dute ikastetxe publikoek (plazen %20 itunpeko ikastetxeentzat gordeko da).

- Izena eman duten talde guztiek ezingo balute egin jarduera, itxarote-zerrenda bat osatuko da. Ikasturtean zehar talderen batek baja ematen badu, itxarote-zerrenda horretan dauden ikastetxeei deituko zaie baja horrek uzten duen lekua betetzeko. Zerrenda hori egiteko inskripzio-ordena eta baja betetzeko behar den talde kopurua hartuko dira kontuan.

6. Esleipena ebaztea eta jakinaraztea.

6.1. Hautaketa-batzordeak txanden behin-behineko esleipena argitaratuko du bere webgunean (www.educacion.navarra.es eta www.navarra.es). Une horretatik aurrera, egutegiko 7 eguneko epea egongo da erreklamazioak aurkezteko.

6.2. Erreklamazioak ebatzi ondoren, behin betiko esleipena aipatutako web orrietan argitaratuko da.

7. Irakasleen eginkizunak.

Irakasle arduradunak taldearekin batera parte hartu beharko du jarduera horietan, ordutegiak horretarako aukera ematen dion neurrian.

7.1. Ikastetxe parte-hartzaileek programaren balorazio idatzia eginen dute, eta erakunde esleipendunari helaraziko dizkiote ondorioak. Erakunde horrek amaierako memoria bat

eginen du, eta Eleaniztasunaren eta Arte Ikasketen Zerbitzuko Euskara Atalean entregatuko du 2027ko ekainaren 30a baino lehen.